

Dobera Euskara Elkarrekin Hernaniko gazteen bizierak: 70garren hamarkadan eta gaur egun ikerketa lanari eman dio 2004-2005eko beka. Ikerketa 4 ataletan dago banatua. Lehen atalean, Lan mundua

aztertuko da, alegia, Hernaniko gazteak eta lana lehen eta orain. Helburua da konklusio batzuk eta ikuspegi orokor bat ateratzea gazteak eta lan munduaren inguruan. Lehen atala abiatzeko

lan munduan esperientzia duten hiru kideri elkarriketak egin dizkiete egileek. Miren Clemente langileak, Jexux Uzkudun CCOOko kideak eta Josean Moreno INEMeko langileak beren iritziak eman

dituzte. Orain mahai inguru bat osatuko da, jende gehiagoren iritzi eta hipotesiak alderatzeko. Mahai inguru honetatik aterako dira konklusioak eta ikuspegi orokorra. Ondorengo erreportaiaren

hiru elkarrizketetako iritzien zertzelada bat azaltzen dute ikerketa aurrera daramaten lau kideek. Iritzi hauek izango dira, abenduaren 22an osatu nahi den mahai ingururako abiapuntua.

# Hernaniko gazteak eta lana, lehen eta orain

LAN munduaren barruan 70-80 hamarkadetatik hona hiru aldaketa nagusi nabarmenduko genituzke: Lan-bandintzak, formakuntza eta langile mugimenduaren funtzionamendua.

## 70 hamarkada: Lana bai, baina ze baldintzetan?

70. hamarkadan Hernani Gipuzkoako industria astuneko gune nagusienetarikoa bat zen. Honen adibide ditugu Urumea ibaiaren alde bietan kokatzen ziren lantegiak; hala nola, Zikuñaga, Pedro Orbegozo, Policloro S.A., papelera ezberdinak, Electroquimicas de Hernani... Bigarren sektore honetan lantegi handiak nahiz tailer txikiak aurki ditzaiteke. Lantegi guzti hauek aurrera egin ezazten ezinbestekoa zen lan-esku kopuru handi bat egotea. Herriko gazteak lan mundura goiz gerturatzen zituen egoera honek. Gazteak oinarrizko heziketa bat jasotzen zuten lan egingo zuten sektoreari begira. Eskolak Hernanin zuzenean enpresa munduarekin lotuta zeuden, eta lantegiak ziren eskola hauen bultzatzaile eta sostengu ekonomiko. EPO zen adibidez, Hernaniko gazteei FP heziketa eskaintzen zien ikastetxea.

Garai hartan ohikoa zen seme-alabak aitak lan egiten zuten lantokian lanean hastea. Hamalau urte ingururekin hasten ziren lanean. Mutilak normalean EPO-ra joaten ziren. Neskentzako apenas zegoen eskaintzarik. Izan ere, emakumeak lantegietan kualifikaziorik gabeko lanetara



Orbegozo lantegia, martxan zegoen garaian.

mugatzen baitzituzten. Hernaniko eskola profesionalean, garaiko enpresekin adostasunean, gazteei ofizioak erakusten zitzaizkien, horrela lan mundurako sarre-  
ra bideratuz.

Gazteak lan munduan

*"...hamalau urterekin hasten ginen lanean..."*

garaiz sartzen zirenez, langile mugimendua ere garaiz eza gutzen zuten. Garai honetan langile mugimenduak pisu handia zuten Hernanin. Bigarren sektorean lan egiten zuten langile taldea, talde handia zen, eta antzeko ezaugarriak elkarbanatzen zituzten. Guzti honek **talde izaera** komun bat eratzea errazten zuen eta helburu komunaren alde borroka egitea. Lantegi berean, lankide berdinekin denbora luzez egoteak, lankideekiko

eta lantokiarekiko (espazio gisara) lotura bat sortzen zuten, honek edozein arazoren aurrean jarrera bateratuago bat ahalbidetzen zuen. Hala ere, ez dugu ahaztu behar, lantegiaren eta momentuaren arabera, langile mugimenduak ezberdin funtzionatu zuela.

Langile mugimenduen indarra gora-beheratsua izan da denboran zehar. Hernanin kasuan, langile mugimendua bideratzen zuten erreferente garrantzitsu bat zegoen: Orbegozo.

Garai bateko enpresak handiagoak zirenez, errazago izaten zen langileak elkartzea. Egun bestalde, lan mundua askoz sakabanatuago dago, langileak enpresa txikietan banatzen baitira.

*"Lehen... denak hor prozesioan eta denak elkartuta... gaur erabat sakabanatuta"*

## Aldaketak

Azken hogeitamar urteetan asko aldatu da lan munduaren egoera. Baita Hernanin ere. Aldaketa nabarmenena bigarren sektorearen ahultzean aurki daiteke. Pisu eta tradizio handiko hainbat lantegi itxi dira Hernanin: Orbegozo, hainbat papelera...

Bigarren sektorea ahultzearekin batera etorri da hirugarren sektorearen, hau da, zerbitzu sektorearen garrantzia areagotzea. Kapitalismo bortitzak eta ekonomia globalizatzeak, enpresen deslokalizazioa eragin du besteak beste, eta honek lan merkatuak egonkortasuna galtzea ekarri du. Merkatuen desegonkortasun honen ondorio lazgarriena bat dugu gure gizartean jasaten dugun egiturazko langabezia.



EPO ikastetxea, tailerreko klase batean.



# Hernani: Industriagune izatetik, zerbitzuen nagusitzera

## Hiper-heziketa

Geroz eta zailagoa suertatzen da lan merkatuan barnertzea. Egun, lanerako ezinbesteko baldintza bilakatu da formakuntza maila altu bat izatea. Langileei geroz eta kualifikazio eta espezializazio handiagoa eskatzen zaie. Eskaera honi erantzun asmoz gazteen gehiengoak geroz eta urte gehiago "inbertitzen" ditu bere prestakuntzan. "Hiper-heziketa" bezala definitu dute adituek fenomeno hori.

Gazteen heziketa gero eta altuagoa izan arren, lan kontratuek alderantzizko joera hartu dute, hau da, geroz eta ugariagoak dira kontratu "prekarioak". Enpresariak geroz eta eskaintza zabalagoa daukate, eta langileei lantegira etengabe egokitzeko prest egotea eskatzen zaie.

## Egun: baldintzak bai, baina eta lana?

Lan merkatuaren funtzionamendu horrek eragina izan du langile mugimenduan. Gaur egunean askoz nekezagoa suertatzen zaie langileei beren burua "langile taldeko"


kide bezala hautematea. Lanak aldizkakoak direnez, langile gazteei oso zaila egiten zaie gainontzeko langileekin harremanak sortzea eta langileen arteko harreman estuak ezinbestekoak dira talde identitatea eskuratu eta aldarrikapen komunek egiteko. Gaur gainera, geroz eta nabarmenagoak dira langileen arteko ezberdintasunak, eta horrek barne zatiketa bat dakar.

Langilegoa egoera berri baten aurrean aurkitzen da, arazo eta erronka berriei aurre egin behar die, eta bada, sindikatuak egoera berri horietara egokitzeko gaitasunik badaukaten zalantzan jartzen duenik ere.

Lan munduak azken hogeita hamar urteetan jasan dituen aldaketak azaldu ditugu modu labur batean, baina uka ezina da hauek modu zabalago batean eztabaida daitezkeela. Horregatik gonbidatzen zaitugu, hilaren 22an, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan egingo den mahai ingurura, belaunaldi ezberdinetako kideen esperientziak ezagutu eta elkarbanatzeko aukera ezin hobea baita.



Goian 1984 urtean Orbegozoko langileen protesta, behean aurrean lan istripuen aurkako protesta.



Langabezia Sektoreka				
Nekazaritza	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak	Aurreneko lanik gabe
6	154	56	415	82

\* Eustat-etik lortutako datuak.

## Mahai ingurua abenduaren 22an

Mahai ingurua datorren asteazkenean egingo da, abenduaren 22an, arratsaldeko 19:00etan Dobera Euskara Elkartearen lokalean (Larramendi 11, behe). Belaunaldi ezberdinetako kideen esperientziak ezagutu eta elkarbanatzeko aukera ezin hobea izango da, eta Doberak interesatu guztiak gonbidatzen ditu.

Babeslea: DOBERA EUSKARA ELKARTEA



Egileak: ATARITIK ANTROPOLOGIA TALDEA

Usoa Barrutiabengoa  
Garoa Gonzalez  
Nerea Elias  
Araitz Rodriguez